

## Erronka:

**Nola hobetu genezake laneko eraikinaren ikus-informazioa, seinaleztatzeko eta girotzeko tresna berriak sartuz, eraikinaren mugikortasuna eta bizigarritasuna hobetzen laguntzeko?**

## Azpi-erronkak:

- Nola areagotu dezakegu indikazioen zehaztasuna, nahi dugun lekuraino modu jarraituan gidatzeko?
- Nola sar genitzake laguntza-elementuak informazioa behar den uneetan, galerak saihesteko?
- Nola gida genezake lekualdatzeko beharra dagoen une batean, eraikinaren barruko testuinguruari buruzko informazioa intuitiboagoa eginez?
- Nola lagundu diezaiokegu larrialdi-sistemari alerta-neurriekin larrialdi-kasuetan?
- Nola hobetu genezake espazioa osatzen duten eremuen zonifikazioa, sailak bereizten lagunduz?

## Testuingurua:

Antolakuntza eta Berrikuntza Sailak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza eraikina kudeatzen du, eta 1.000 pertsonak baino gehiagok lan egiten dute egunero, lanerako guneak erabiliz. Espazioa elkarren artean konektatutako hainbat solairuk osatzen dute, eta guztira 25.000 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera dute.

Gaur egun, **hobetzeko espazio bat hauteman da eraikinaren barruan orientatzeko jarraibideak ematerakoan**. Langileen lanpostuak finkoak direnez, eremu edo sail berri batera lehen aldiz joan behar dutenean, ez dakite non kokatu eta ez dute iristeko jarraibiderik aurkitzen. Horren ordez, lankideei galdetzen diete. Horregatik, eraikinaren barruan gidatzeko jarraibideak emateko modua hobetu nahi da, seinaletika pasiboa eta orientazio/zonifikazioko elementuak erabiliz eta eraikinaren erabiltzaileak orientatzeko jardunbide egokiak sortuz.

Hiru lan-gune nagusi ikusten dira, ideia eta irtenbide digital berriak aplikatzeak taldeari lagun diezaiokeenak:

1. **Seinaletikako eta argibideko tresna berriak** sartzea, hau da, smartphonerik eta egokitzipenik behar ez izatea, eraikin barruan lekualdatu behar denean laguntzeko.
2. **Girotzeko tresna berriak** sartzea, lan-eremua osatzen duten eremuak zonakatzeko.
3. Osagai berri horiek **larrialdietan abisu-sistemei lagundu** diezaieketen aztertzea.

## Helburuak:

Gutxienez bi helburu betetzen dituzten irtenbideak bilatzen ditugu:

- Eraikinaren orientazioa eta erabilera hobetzen lagunduko duten seinaleetika pasiboko tresna berriak txertatzea.
- Espazioko eremu berri batera joateko beharra dagoenean, teknologia bat txertatzea.
- Teknika berritzaileak erabiltzea lan-eremu komuna osatzen duten eremuak zonifikatzeko, zonak edo sailak bereizten laguntzeko.
- Teknologia berri horrek larrialdien eremuari nola egin diezaiokeen ekarpena aztertzea.
- Eremu fisikoa eta digitala hibridatzeko aukera aztertzea, mugimendu- eta gida-esperientzia hobetzeko.

## Zer nahi dugu?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

Erronkarako balio argia eta garrantzitsua duen proposamena.

- Merkatuan trakzioa duen soluzio teknologikoa.
- Erabiltzaileentzat intrusio gutxiko esperientzia, barneko langileentzat zama gehigarri handiagorik ez dakarrena.
- Hartzerako eta inplementaziorako erraztasuna.
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: Ezagutza digitalen maila desberdinak dituzten pertsonentzat egokia den soluzioa.
- Soluzio elkarreragilea.

## Prozesua eta data garrantzitsuak:

Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna 2024/05/24** da.


Hautaketa-prozesuak honako urrats hauek ditu:

- Bost enpresa hautatzea, kontuan hartuta planteatutako soluzioa noraino egokitzen zaion erronkari
- Hautatutako bost enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala gertuagotik ezagutzeko



- Hiru enpresa finalista hautatzea
- Hiru finalisten pilotatze-proposamena aurkeztea
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea

Soluzio irabazlea ezartzeko **pilotatzea 2024ko ekainaren 28an hasiko da, 5 hilabeteko iraupenarekin.**



Erronkari edo prozesuari buruzko zalantzarik baduzu, idatzi e-maila helbide honetara [govtechlab@bizkaia.eus](mailto:govtechlab@bizkaia.eus)

## Zer lortuko duzu?

Pilotatzea ordaintzea (gehienez 15.000 euro).